

## Espekulazio teatroak:

Espekulazio teatroa - Colin Rowek (1978) Collage City obrako azken zatian erabili zuen termino bat dugu.
Honekin hiriaren imanigarioak proiektatzen diren espazioetaz hitz egin nahi zuen, hauek denbora eta espazioen fragmentu ezberdinekin konbinaturik osatutako ezagutza eta aitorpen baten bidez.

Espazio urbano mota bat da, kondizio morfologiko konkretu bat duena; ertz, bazter eta mozketek osaturiko huts-ena. Hust hauek hiriaren forma eta azkundea erakusten digute; izate ezberdineko trazak batzen diren espazioak izanik. Hiriak maskara ezberdinen bidez bere irudia proiektatu du espazio hauetan eta historikoki azaleratu da bere burua errepresentatzeko nahiarekin.

Azalera hauetan espektatiba asko jarri dira, baita azken urte hauetan ere, Zorrozaurre batean ikus dezakegun moduan. Hobekuntza produktibo, sozial edo ingurumenekoak planteatuz, baina hoien gainetik bere imaginarioa eraldaketa generalago bat errepresentatu nahian.

Teatroak dira, azken finean, hiriak bere identitate propioaren inguruan espekulatzeko espazioak; Espekulazio teatroak.

## Huts-a teatro moduan:

Hejduk -en Victims proiektuan erakusten duen moduan; espazio hauen trataera mota bat; huts-aren manipulazioan datza.
Lehenik eta bein, proiektuak ez du huts-a bete behar, ikertu, interpretatu eta bere aktore edo azpektu ezberdinak ordena berri baterako argumentu bilakatzen ditu. Hondakina, hiria deskonposatzen den tokia, hiria azaltzen den tokia ere bada aldi berean; bere elementuak banatu eta ikusgarriagoak egiten diren espazioak dira.

Proiektu hau orduan ez da hiriaren zati berri baten definizio bat moduan ulertu behar, hiriaren azkundea oinarritzen den konbentzioen erreflesio baten moduan ulertu behar da; hiriaren forma prozesu bat bailitzan.
Huts-a hortaz, ezta hiri azkundearen euskarri utzal bat, proba espazio bat da, bere irudi, alternatiba, errepresentazio ezberdinen izaera horrek ahalbidetzen duelako. Huts-a teatro moduan, hiriaren izaerako kolektiboarekin zerikusia duena, hiria sortzuntza kolektibo baten moduan.
Solà-Morales-ek hiriaren orden berri baten potentziala aitortzen zuen: "La fuerza del lugar es, en la periferia, la ausencia de lugar en el sentido clásico, es decir, la ausencia de determinaciones marcadas por la historia del locus."
Huts-aren protagonismoa nabarmentzen zuen, materialen dispertsio, fragmentazio eta atonomian; periferia espazio negatibo moduan ez ulertzeko "sino, al contrario (...) como territorio activo del proyecto contemporáneo de metrópoli."
Bernardo Secchik ere, hiri garaikidea formazio eta eraldatze prosezuan dagoen errealitate baten moduan ulertzearen beharra adierazten digu, honen potentziala bere indeterminazioan dagoelarik, eraldaketaren zabalkuntzan eta proiektuaren definizio alternatiboak azaltzean.







Ipar Mendebaldeko Fatxada E:1/200





Ipar Mendebaldeko Fatxada E:1/200



Beirazko Fatxada detailea E:1/30

Fatxada detailea oinean E 1/30